

XXI. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Jauna, zeure fededunen bihotzak gogo bateko egin dituzu;
 egizu, zeure herriak maita dezala Zuk agindua
 eta itxaron Zuk hitzemaña;
 mundu aldakor honetan dauden bitartean
 gure bihotzek sendo iraun dezaten
 egiazko zoriona dagoen lekuan.
 Zur Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 66, 18-21

*Atzerri guztietatik ekarriak izango dira
 zuen senide guztiak.*

Isaias Profetaren liburitik

Honela mintzo da Jauna:
 «Banatorkizue
 herri eta hizkuntza guztiak biltzera;
 etorriko dira,
 eta ikusiko dute nire aintza.
 Ezaugarri bat jarriko dut haien artean,
 eta haietatik bizirik gelditutako batzuk
 bidaliko ditut atzerrietara;
 Tarsisa eta Etiopiara,
 Libia, Masak, Tubal eta Greziara;
 nire berririk gabe,
 eta nire aintzarik ikusi gabe dauden
 urrutiko uharteetara.
 Eta nire aintza zabalduko dute atzerrietan.
 Atzerri guztietatik ekarriak izango dira,
 Jaunaren oparizat, zuen senide guztiak,
 zaldiz, gurdiz eta eskuaultz,
 mandoz eta dromedarioz,
 Jerusalemgo mendi santura —dio Jaunak—,
 Israelgo seme-alabek beren opariak jauretxera
 ontzi garbietan ekartzen dituzten bezala.
 Eta haien artetik aukeratuko ditut,
 bai apaiz, bai lebitar —Jaunak esana—».

ERANTZUN SALMOA: Sal 116, 1. 2

R/. **Zoazte mundu guztira,
 eta hotsegin berri ona.**

Goretsazue Jauna, atzerri guztiak,

Goraipa ezazue, herri guztiak. R/.

Sendotu baitu guregan bere maitasuna,
eta beti-betiko dago Haren leialtasuna. R/.

II. IRAKURGAIA: Heb 12, 5-7. 11-13

Jainkoak, maite duena zentzarazten du.

Hebertarrei egindako epistolatik

Senideok: Ahaztu egin zaizue, seme-alabei bezala ematen zaizuen burubide hau:

«Ene seme, ez gaizki har
Jaunaren zentzaldirik,
eta ez galdu kemenik,
Hark haserre egin dizula eta.
Jaunak, maite duena zentzarazten du,
eta semetzat daukana zigortzen».

Hartazue hori zentzabiderako. Seme-alabekin bezala ari da Jaungoikoa zuekin. Izan ere, bai al da, aitak zentzarazten ez duen seme-alabarik?

Zentzabide guztiak orain pozgarri ez, baina mingarri dirudite; baina gero, haietan hezitakoei, fruitu baketsua ekartzen diete: zuzenbidea. Jaso itzazue, beraz, esku eroriak eta belaun ahulduak; ibili zuzen zeuen oinekin, herrera zainartuta ez dadin, sendatu baizik.

EBANJELIOA: Lk 13, 22-30

Aleluia: Jn 14, 6

R/. Aleluia.

V/. Ni naiz bidea, egia eta bizia —dio Jaunak—;
ez doa inor Aitarengana,
nire bitartez ez bada. R/.

*Etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik,
eta Jaungoikoaren erreinuko mahaian jarriko dira.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, bazihoan Jesus, herri eta auzoetan barrena erakusten, Jerusalem bidean.

Eta batek esan zion: «Jauna, gutxi al dira salbatzen direnak?» Berak erantzun zion: «Saia zaitezte ate estutik sartzen; asko izango dira —Nik diotsuet— sartu nahiko dutenak, eta ezingo dira sartu. Etxeko jaunak jaiki eta atea ixten duenean, kanpoan geldituko zarete eta ate joka hasiko, esanez: "Irek iezaguzu!" Eta Hark erantzungo dizue: "Ez dakit nortzuk zareten".

Orduan zuek honela hasiko zarete: "Guk Zurekin jan eta edan izan dugu, eta Zuk gure enparantzetan erakutsi izan duzu". Baina Hark esango dizue: "Ez dakit nortzuk zareten; alde Niregandik, gaizkileok!"

Orduan izango da negarra eta hortz karraska! Abraham, Isaak, Jakob eta profeta guztiak Jaungoikoaren erreinuan ikusiko baitituzue, eta zuek handik kanpora bidaliak izango zarete. Etorriko dira, gainera, sortaldetik eta sartaldetik, iparraldetik eta hego aldetik eta Jaungoikoaren erreinuko mahaian jarriko dira. Eta begira: badira azkenekoak, lehen

badira lehenengoak, azkeneko izango direnak».

Oparigaien gainekoa

Kristoren opari bakarraren bidez, Jauna,
zeure seme-alaben herri egin gaituzu;
emaiozu zeure Elizari batasuna eta bakea.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Eraman ezazu bere betera, Jauna,
zeure errukizko salbamena;
eta egizu, Zuk lagundurik,
gauza guztietan zure gogoko izan gaitezela.
Jesu Kristo.